


VILLA D
D MAILA

MATXIÑENE 12-14



José Angel Fernández de Casadevante, 1917

Deskribapena

Bakarrik 15 bizitza eraiki zituzten, 5 etxetan banatuta, jatorrizko ideiak 400 bizitza jasotzen bazituen ere. Ideia hori Maria Kristina erreginak sustatu zuen, etxebizitza merkeak egitearren. Geroago, ekimen partikularrek bultzatuta beste 14 eraikin altxatu zituzten. Porrotaren arrazoiak toki horretan langileentzako etxebizitzak egiteko zailtasunekin daude lotuta, izan ere bere garaian garraio publikorik ez zuen inguru horretan okupazio dentsitatea txikia zen, eta eraikinen etekin ekonomikoa kaxkarra. Loiolako lorategi hiriaren planorako, kontuan hartu zituzten bai erdiko plazaren ideia bai lorategi hiriaren ideia teorikoa. Trazatu erradial bat eta garai erregionalistako etxe multzo bat geratu dira, hirukiko kaleak bide nagusira iristen dira zuzenean, eta erdiko plaza zirkularren ideia ez da inon ageri. Fernández de Casadevantek data berean diseinatu zituen A, B, C, D eta E izeneko villak, 1917an lorategi hirirako lehiaketa irabazi eta gero. D villak L formako oinplanoa eta tartean mehelina duten bi bizitza dauzka. Sarrera biek bat egiten dute fatxadako motibo bakar batean, horma piko kopetedun baten pean, bizitza bakarria balitz bezala. Bi solairu dauzkate halaber, inguruko vilkek bezala, eta antzeko eskala. Era berean, aldea ezartzen da harrizko zolakoa eta bao arkudunak dauzkan beheko solairuaren eta goialdeko balkoien, murru aurreratuen eta adreiluzko betegarria duten bilbaduren artean.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: beheko solairuan, atzealdean, egindako erantsiak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak, zurezko elementuak, bilbadura eta estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzek: ez.